

Maialen Lopez Lasa

A maila • **Aipamena**

Idazteak ekarri nau gaurkoan hona. Beharbada, ni ere norbaiten idatziz sortutako naiz...

Idazle hark istorio hau ,lehenengo hizkiz eta gerora esaldiz, orain dela ia 17 urte hasi zuen, azaroak 14 egun bete zituenean. Asko dira, ordudanik, antzezle den horrek ikasi dituenak bai eta irakatsi dituenak ere. Zenbatu ezinak dira, halaber, bizitakoak, nostalgiaz oroitzen eta oroituko dituenak, eta oraindik ere, lumak idatzi ez dituen mila bider gehiago, geratzen zaizkionak. Hala ere, bizitza den istorio honek, eskertzekoak ditu batez ere,sarriagotan esan beharko liratekeen, baina, esaten ez diren hitz xume haiek.

Hortaz, besterik gabe, sari hau, gidari izan ditudan ama eta aitari ,zein, esaten ez diren hitz handi haiek, idatzi nahiz irakatsi dizkidaten aitona eta amamari eskaini nahi nieke, zuek baitzarete, egiaz, istorio honen arima...



HAN GOITIK....ZERUTIK

Han goitik, itsasoa ikusten da, polita da...urdina...desberdina...

“Fallece un joven de 17 años al precipitarse al vacío desde la azotea de un edificio. Se investigan las causas, pero todo indica a que podría tratarse de un suicidio”

Barka nazazu atea jo gabe sartu banaiz, ez da lekurik onena, ez eta ordurik egokiena ere. Han goian, hain gaizki ez nagoela kontatzera natorkizu eta bide batez, agur esatera: nire goiko lagunek baitiote maite ditugunak benetan agurtzea beharrezkoa dela, betiko goazenon arima aske geldidadin, erabat libre...

Jende asko maitatu dut nire bizitzan zehar eta maitasun hori agertzen saiatu naiz, estimua agertzen sikiera... baina, zoritxarrez, ez dut horrelakorik jaso. Aitzitik, iraina eta erdeinua izan ditut opari, eta aihergatasuna pagamendu...

Zu neska berria zinen eskolan, ni, berriz, mutil ikusezina. Zu neska interesgarria eta ni mutil frikia. Zu neska desiratu eta ni mutil izurritsua...

Ni maitemintzeko berrogei bat arrazoi bazenituen, bai eta lortu ere. Nik, aldiz, ezer gutxi nuen zuri eskaintzeko: erabat higitutako luma batez idatzitako hitz xume batzuk besterik ez. (Azkenean hori ere ezin izan nizan eskaini, idazten hasi orduko malkoak erori eta orban beltz bat uzten baitzuten paper xumearen gainean...).

Maitasunak mina omen dakar,eta ez du sendabiderik, baina sendabide bakarra da , hala zioen poeta eta abeslari batek... Eta Kupidok bere geziz nire bihotza zeharkatu zuenean... zurekiko maitasuna, nire biziraupen sokan bilakatu zen,gerora urka-bilur izango bazen ere.

Nire minbiziaren kimioterapia, drogazale baten heroina...nire izate guztia inguratzen zuen estalki ahalguztidun eta ikusiezina. Estalkiaren azpian indartsu sentitzen nintzen, soraioz...irain handienen aurrean, indarkeria zitalenen aurrean...

Eta zuk zer zenekien nitaz? Zer kontatu zizuten?

Gogoratzen al duzu? Bai nik ederki gogoratzen dut.

Euria ari zuen, etengabe... Nik aterkia neraman (frikiok aterkia eraman ohi dugu euria ari denean, besteak txanoz baliatzen dira ez bustitzeko, burua lehor edukiz gero gorputzeko beste atalak bustiko ez balira bezala), zu, aldiz, blai eginda zeunden liburutegi irteerako estalkiaren azpian:

- Aterkia daukat, nahi baduzu autobus geltokiraino lagun zaitzaket...- ilea busti busti eginda, masailak gorri, benetan polita zeunden...

- Ah, mila esker...! - Lehen aldiz ukitu ninduzun esku hotz eta bustiz - Xabier zara ezta, Xabier Erola azkeneko ilaran, bakarrik esertzen dena?.

"Nire izena badaki...ezagutzen nau ... ez naiz ikusezina bere begietarako!" pentsatu nuen nirekiko.

- Eh ...Bai.. hala naiz eta zu...neska berria... Maialen!

Liburutegitik autobus geltokirainoko hamar minutu xume horiek izan ziren azken bi urteko unerik zoriontsuenak...Ez dakit zertaz hitz egin zenidan, ez eta ni zertaz aritu nintzen ere. Zu, euria eta ni; ez zegoen besterik....

Bigarren aldiz libutegian egin genuen topo, hura baitzen nire txoko, babesturik sentiarazten ninduen leku bakar... nire gordeleku. Hainbat eserlekuren artean nire aurrean zegoena aukeratu zenuen...eta fisikaz aritu ginen, energia zinetikoaren formulaz eta baita poesiaz eta musikaz ere.

Ed Sheeranen "Photograph", datorkit burura.

Hamaika aldiz elkartu ginen leku ixil hartan eta liburutegi hura gure topagune magiko bihurtu zen. Zuk han egongo nintzela bazenekien eta nik zuk aurkituko ninduzula...

Baina zoritxarrez, norbaitek liburutegitik nirekin irteten ikusi zintuen eta....

Nik, aldiz, nire barnean nuen guztia azaldu nahi izan nizun, izan ere, maitasuna konplizerik gabe egin ezin daitekeen krimena da eta nik konplizetza nahi zintudan. Horrela ba, hainbat aldiz nire tristura eta etsipena idatzi zuen lumak, maitasunez beteriko amodiozko gutuna idazteari ekin zion, nire sentipen guztiak kaleratuko zituen karta bat, instant batean eta erremediorik gabe, nire suntsipenera eramango ninduen ezinezko suertatzen zitzaizkidan amodiozko letrak.

Laurehun hitzek jantzi zuten paper hura eta mila sentipenek itxura eman, baina esku arrotz haiek nire motxilatik atera eta beste hainbat eskutartean ibili eta gero, era bat biluztu zuten eta sentipenak bortxatu.

- Hara, frikiak gain poeta ere bada ta...! Ea ea nori idatzi diozu karta pinpirin hau?- Lurrean eserita burua eskuartean nuela, ezin nuen hitz egin.Buruan jotzen ninduten...

- Ziurrenik,marikoi honek, seigarren mailako ume komunera eraman eta...badakizue, karta honekinnnnn!! Nazkagarria,.....!! - zioten .

Kolpeak buruan, izterretan, saihetsetan...(Aspaldiko partez)

" Maialen " izena atera zitzaidan eta...bat-batean zuri begira bueltatu ziren buruak... eta zuk, harro bezain boteretsu, hotz eta krudelki nirera begiratu eta, inoiz inork emandako ostikorik gogorrena eman zenidan, jasan ezina zen ostikada bihotzean, ukitu gabeko ostikada.... Isiltasuna.

Zergatik galdetzea alferrikakoa suertatu zitzaidan, eta oraindik ere halaxe suertatzen zait.

Zer zenekien nitaz? Zer esan zizuten ?

Ni ez nintzen mutilik lirainena ezta itsusiena ere,ez nuen betaurrekorik ezta hortzetako aparatetik ere; ez nintzen ez gizen, ez argal, ez eta elbarria ere. Baina ni besteek jo, iraindu eta bortxatzeko hautagai perfektua nintzela erabaki zuen norbaitek noizbait. Oraindik, han goitik honen zergatiaz galdetzen diot nire buruari, nirekin daudenei ere bai...Baina inork ez dit oraindik erantzunik eman.

Hasieran ezizen originala jartzen arduratzen ziren, eta batez ere jendearen artean esamesak zabaltzen, era horretara pixkanaka ni zokoratuz joan ziren. Geroago, kolpe xumeak egin ziren protagonista, eta gutxira bortxakeria soila, sentimendu gabea ...

Gaua nire aliatu bihurtu zen eta egunsentia oinazealdia . Egunero, irainen beldurrez, izerdia sentitzen nuen gorputzean zehar eta etsipenezko negarrak barrena betetzen zidaten ia itotzeraino, intzirizko bideetan zehar.

Koldarra izan nintzen ez nuelako denek ezagutzen zuten tratua salatu .

Sua nuen barnean, baina ezin nuen adierazi. Egunero-egunero arku tenkatu batez jaurtikitako geziek bezala zulatzen ninduten hitz gaizto eta iseka guztiek, ostiko eman nahi izan nien nire etsaiei; garrasi egin , eta bere gorputzak indarrez astindu.Gustura oihukatuko nien: “Utz nazazue bakean. Utz nazazue behingoz, gau batez bada ere, burukoa malkoz busti gabe, begiak erretzen eduki gabe lo egiten,”

Baina indarrik gabe gelditu nintzen...aho kordak ihar eta bihotza hutsik..

Zu agertu zinen arte... Izan ere, eta zu agertu zinenean deuseztezintzat jo nuen estalki haren azpian babestu nintzen. Zure diamantezko oskolpean...

Baina alferrik....

Laurehun maitasun hitz haiek irakurtzeko abagunerik ez zenuen izan eta gaur zure logelan nagoen honetan, laurehun hitz horiek hiru hitz xumeetan laburtuko dizkizut , eta belarrira esan:

“ Maite zaitut maitia”

Bete dut nire egin beharra eta nire bizitza lurrean bakean da, jada. Orain zerua dut zain...

Ekaineko egun argi batean nire buruz beste egin nuen. Lasai, hutsera salto egin nuen, nire bizitzako saltorik handienera, beharrezko suertatu zitzaidan betiko atsedenera bila. Lurra jo eta mina sentitu nuen deskriba ezin den mina, min fisikoa..eta gero bakea....bi urteotan ezagutu gabeko bakea...

Han goitik, zerutik, itsasoa ikusten da, polita da urdina, perfektua...

“Argazki honetan gelditzen da gure maitasuna

Gure oroitzapenak

Gure begiak ixten ez direnean

Bihotzak apurtzen ez direnean

Eta denbora betiko izozten denean”

(Ed Sheeran,Photograph)